



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko ekainaren 25ean

70 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako “Berrikuntza Hiria” sustatzeko, jarduera ekonomikoen edo aukeren eremua besterentzeko prozesua arautzen duena (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztua, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa zenbatekoa den eta 2001etik 2003ra bitarteko aurrekontualdietan nola banatuko den ezartzeari buruzkoa (5. or.).

—Foru Lege proposamena, saltoki handietarako zerga bat sortzekoa. Zuzenketak aurkezteko epea (14. or.).

—Foru Lege proposamena, etxeko indarkeriari eta bikotekideen artekoari aurrea hartzeko neurriei buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (14. or.).

—Foru Lege proposamena, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa zenbatekoa izanen den eta 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontualdietan nola banatuko den ezartzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea (15. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Batasun kanpotik etorri eta nazioartean lehia handikoak diren elikagaien etiketen aldaketa proposa dezan (16. or.).

—Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legearen aldaketa proposa dezan, nafar ezgaituak eta araubide komunekoak parekatzearren (17. or.).

—Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laneko jazarpen morala ekiditeko neurriak har ditzan (18. or.).

—Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Parlamentua Tuteran unibertsitate mailako ikasketak jartzearen alde azaltzen da (19. or.).

- Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, entsegu kliniko bat egiteko eskatzen da, heroinazaleen mantentze tratamenduan heroinaren eraginkortasuna ikusteko (20. or.).
- Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, drogazaleenganako arreta dela-eta zenbait neurri hartzeko eskatzen da (21. or.).
- Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan ekonomiko bat aurkez dezan Audenasak daukan A-15aren emakida berreskuratzeko ekarriko lukeen gastuari buruz. Erretiratutako mozioa (23. or.).
- Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2002-2009 eperako Errepide Planean A-15a autobia bihur dezan. Erretiratutako mozioa (23. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak egina, telefonia mugikorrek erradiazio elektromagnetikoari buruzko azterlan bat egiteari buruzkoa (24. or.).
- Galdera, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak egina, bi marokoaurrek pairatutako diskriminazio tratua dela-eta jarritako salaketari buruzkoa (25. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, Nafarroako Ehizari buruzko Batzorde Aholku-emaileko kideak izendatzeko irizpideei buruzkoa (25. or.).
- Galdera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarteari emandako diru laguntzei buruzkoa (26. or.).
- Galdera, foru parlamentari José M^a Aranaz Echarri jaunak egina, edateko uraren hornidura dela-eta arazoren bat izan duten herriei buruzkoa (27. or.).
- Galdera, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak egina, "Bidezainen etxeak" izenekoei buruzkoa (28. or.).
- Galdera, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egina, errenta aitortpena Interneten bidez egin ahal izateko oztopoei buruzkoa (29. or.).
- Galdera, foru parlamentari Jorge Mori Igoa jaunak egina, kartzela zaharraren orde berri bat jartzeko konpromisoa nola beteko den jakiteko (29. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuko plantilla organikoaren aldaketa (31. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako “Berrikuntza Hiria” sustatzeko, jarduerak ekonomikoen edo aukeren eremua besterentzeko prozesua arautzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 18an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-teari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2001eko ekainaren 4an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako “Berrikuntza Hiria” sustatzeko, jarduerak ekonomikoen edo aukeren eremua besterentzeko prozesua arautzen duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Nafarroako “Berrikuntza Hiria” sustatzeko, jarduerak ekonomikoen edo aukeren eremua besterentzeko prozesua arautzen duen Foru Lege proiektua ohiko prozeduraz bideratzea.

Bigarrena.- Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea irekiko da, 2001eko irailaren 13ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalgo dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2001eko ekainaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proiektua, Nafarroako “Berrikuntza Hiria” sustatzeko, jarduerak ekonomikoen edo aukeren eremua besterentzeko prozesua arautzen duena

ZIOEN AZALPENA

Foru Lege honen asmoa da berrikuntza teknologikorako proiektu baliagarri bat sustatzea, hazkunde ekonomiko saneatu baten oinarriak finkatzeko. Gisa horretako proiektuek, sare ekonomikoaren etengabeko berriztapena bermatzen baitute, tratamendu juridiko egokia behar dute, erakundeen arteko lankidetzaren esparruan.

Sarrigurengo eko-hiria izeneko proiektuak hartuko duen eremua toki paregabea izanen da enpresa berritzaileak kokatzeko, tamaina, sarbide, ekipamendu eta zerbitzu egokiak izateko aukera eskainiko baitie. Horrela, ingurumena errespetatuko duten teknologiak garatu eta ezartzeko jarduerak ahalbidetuko dira, batez ere etorkizun handiko sektoreetakoak, hala nola, telekomunikazioak, industri material berriak, elektronika, informatika eta puntako bestelako alorretakoak. Diseinu eta taxuketa aldetik ezaugarri ekologiko eta bioklimatiko agerikoak dituen eremu batean txertatuko dira aipatu jarduerak, ezaugarri horiek baitira proposaturiko garapen berriaren ardatz komunak. Ahalegin bateratu horien ondorioz, Sarrigurengo eremua izen handiko ingurune erakargarria bilaka daiteke, etxebizitzaren eta jarduerak ekonomikoen alorretako ekimen harmonikoetarako, ingurumenari dagokionez irizpide berberak izanik, bizi-kalitatearen sorburu izanen diren ekimenetarako, alegia.

“Berrikuntza hiria” oinarritzko bi etapatan gauzatu ahalgo da, beharrezkoak diren lurren ordura arteko erabilera aldatu, eta foru lege honen bidez lortu nahi den erabilerarako egokiak direla deklaratu ondotik. Proposatu diren jarduerak berritzaile-

ak garatu ahal izateko, garrantzi handiko baldintza izanen da lurzatiak prezio mugatuan eskaintzeko aukera egotea interes teknologiko handiena duten ekimenetarako. Abenduaren 29ko 24/2000 Foru Legeak, Sarrigurengo udalez gairikoko planeamendu sektorialak ukituriko eremua besterentzeko prozesua arautzen duen horrek, lurzorua merkataritzako erabilpenetarako besterentzeko, enkantean jarriz saltzea ezartzen du, baina argi da prozedura hori aipatu baldintzarekin bateraezina dela. Hortaz, prozedura egokiak aplikatzeko moduak ahalbidetu behar dira, proiektatutako jarduera berrietarako lurzorua besterentzearen.

Artikulu bakarra. 1. Abenduaren 29ko 14/2000 Foru Legearen 3. artikuluan aipatzen den jarduera ekonomikoen edo aukeren eremua berrikuntza teknologikoekin zerikusia duten industri eta zerbitzu arloko jardueretarako erabiliko da, eta ingurune horretan kokatuko den Berrikuntza Hiria- ren lehenengo fasea izanen da.

2. Nafarroako Gobernuak Sarrigurengo eremuaren planeamendua burutzea Foru Komunitateko kapital publikoko elkarteren baten esku uzten badu, eremu horretako bere titulartasuneko ondasun eta eskubideak delako elkarte horri eskualdatu ahalko dizkio. Nolanahi den ere, hirigintza jar-

duketa horren ondoriozko ondasun eta eskubideak hirugarrenei besterendu edo eskualdatzeko, abenduaren 29ko 14/2000 Foru Legean ezarri moduari eta baldintzei jarraikiko zaie, lurzorua etxebizitzetarako bada. Jarduera ekonomikoen edo aukeren eremuaren kasuan, berriz, Nafarroako Gobernuak sustaturiko industrialdeetako lurzatiak saltzeko baldintzak finkatzen dituen azaroaren 28ko 249/1986 Foru Dekretuan eta haren arau osagarrietan xedatutakoaren arabera jokatu da.

Azken xedapenak

Lehenengoa. Indarrik gabe utzi dira Sarrigurengo udalez gairikoko planeamendu sektorialak ukituriko eremua besterentzeko prozesua arautzen duen abenduaren 19ko 14/2000 Foru Legearen 3 eta 6. artikulua eta xedapen iragankorra.

Orobat, indarrik gabe utzi dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo beheragoko xedapenak oro.

Bigarrena. Foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa zenbatekoa den eta 2001etik 2003ra bitarteko aurrekontualdian nola banatuko den ezartzeari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 18an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa zenbatekoa den eta 2001etik 2003ra bitarteko aurrekontualdian nola banatuko den ezartzeari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa zenbatekoa den eta 2001etik 2003ra bitarteko aurrekontualdian nola banatuko den ezartzeari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Bigarrena. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2001eko ekainaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa zenbatekoa den eta 2001etik 2003ra bitarteko aurrekontualdian nola banatuko den ezartzeari buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

I

Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legearen sarreran ezartzen den bezala, mende asko dira Nafarroak gai honetan arauak emateko eskumena duela. Horren ondorioz, araubide berekia eta berriazkoa eratu du. Horren arabera, toki ogasunak ez dira jotzen organo berekizat, Foru Administrazioarekiko independentetzat; partaidetza konpartituaren bitartez, bi horien artean lotura bat dago, bilduriko tributua administratzeko.

Formula hori dela medio, Nafarroa aitzindari izan zen tributuen arloko partaidetza konpartituan, eta, hamarkadetan zehar, abantaila izan zuen Estatuko udalerriekiko, finantzen askitasunari dagokionez.

Gaur egun, XXI. mendea jadanik hasia dagoenean, iraganean izandako egoera horren falta sentitzen dute Nafarroako udalek eta kontzejuek, eta denbora daramate toki ogasunek pairatzen duten eskastasun ekonomikoa eta prekarietate-egoera behin betiko amaitzeko finantzaketa-eredu bat onets dadila eskatuz. Eredu ezberdinak proposatu izan dira, baina horri buruz legediak ezarritakoa ez du oraindik ezein eredu gauzatu.

6/90 Foru Legeak 259. artikuluan ezartzen duenez, toki entitateek behar adina baliabide izanen dute euren eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren bitartekoak bermatzeko. 260 eta 261. artikuluek aitortzen dute toki administrazioek eskubidea daukatela tributuen ondorioz Foru Ogasunak biltzen dituen diru-sarreraren banaketan

parte hartzeko, berezko zilegitasun, askitasun eta egonkortasunez eta baldintza beretan.

Gaur egun indarra duen finantzaketa-ereduak ez dio inola ere erantzuten artikulu horietan ezarritakoari. Azken epe honetan Nafarroan izan diren hazkuntza ekonomikoko tasak izan direnak izan arren, tributu bidezko dirusarrerek izugarritzko gorakada izan duten arren eta Nafarroako Aurrekontu Orokorra handitu den arren, Nafarroako toki entitateen oinarritzko beharrianak asetzeko zuzkidura oraindik ere eskasa da guztiz.

Transferentzia arruntak inflazio-indizearen azpitik igotzeko proposamena ere entzun izan da. Hain zuzen ere, toki entitateak gobernuarekiko menpekotasun klientelistan egotera makurtzen dituen eredu baten aldeko apostua, haiek ekonomikoki itotzen dituen, egiten da.

Azkenaldi honetan, kapital-transferentzietarako ezarritako zuzkidura nahikoa izan ez denez, hiru urteko planean sartuak izan daitezten toki entitateek oroit-idazki zenbatetsi eta arrazoituen bidez eginiko eskabideetatik lautik ia hiru ez dira gauzatu, nahiz eta kasu askotan azpiegitura-defizit larria pairatzen duten.

Askotan jo izan da egoera horren arrazoi nagusia funtsaren zenbatekoa kalkulu arbitrario baten arabera eta ezein irizpide objektibo kontuan izan gabe ezartzea izan dela. Halaber, Toki Administrazioiko Departamentuko eta beste departamentu batzuetako (hala nola Gizarte Ongizatea, Kultura, Kirola eta abar...) transferentzien arteko proportziorik ezaren ondorioz, toki entitateetarako kapital transferentzien ia erdiak hiru urteko planekoekin zerikusirik ez duten prozeduren bitartez zehazten dira.

Ondorioz, presako soluzioa behar da Nafarroako toki entitateen multzoak jasaten duen arazorako, zeina behin-behinekotasun iraunkorrek, menpekotasunak eta Nafarroako Gobernuak finantzaketari dagokionez emandako tratu txar ekonomikoak sortua baita. Soluzio hori aplikatzean toki entitateen askitasun finantzarioa bermatu behar da, hori baita toki autonomiari eusteko formula bakarra.

II

Horregatik, gure ustez, Foru Ogasunak biltzen dituen zergetan toki entitateek parte hartzeko sistema bat arautzeko aldaketa batek honako alderdi hauek hartu beharko lituzke aintzat:

1.- Nafarroako Gobernuaren, udalen, kontzejuen eta mankomunitateen artean eskumenak mugatzea zerbitzuak zuzenean emateari dagokio-

nez, horrela zerbitzu horien kostua behar bezala zenbatetsi ahal izateko.

2.- Funtseko zuzkidurak izan beharreko xedea da toki entitateek euren gastuak finantzatzeko behar adina baliabide lortzea, euren tributu berekiei presio fiskal jakin bat aplikatu ondoren.

3.- Toki Ogasunek Nafarroako zergetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa ezartzean kontuan hartu beharko da toki entitateek duten eskubidea bildutako zergen ondoriozko diru-sarrereren banaketan gainontzeko administrazioek dituzten eskubide berberekin parte hartzeko. Zenbateko hori ezartzeko, ehuneko bidezko formula da egokiena. Urtero inolako gaurkotzerik beharrezko egiten ez duen bakarra izateaz gain, Nafarroako ekonomiaren gorabeheretan toki administrazioei eta Diputazioari esleitzen die erantzukizuna.

4.- Aipaturiko funtsean izan beharreko parte-hartzea Foru Ogasunak zuzenean eta zeharkako zergen ondorioz bildutako guztiaren %15ekoa izan dadila erabaki da, kantitate hori arrazoizkoa baita udalen beharrianetarako, jasangarria Foru Administrazioaren ahalmenetarako, eta arlo honetan Europar erabiltzen diren estandarrekiko oso hurbila.

5.- Transferentzia Arruntetarako Funtsaren banaketak aberastasuna birbanatzea izan behar du xede, halako moldez non toki entitate bakoitzak gastu-maila bera presio fiskalaren maila berarekin finantzatu ahal izan behar baitu.

Transferentzia arruntak justizia eta proportzionaltasun irizpideen arabera banatu beharko dira. Besteak beste, honako hauek hartuko dira oinarritzat: biztanleria-indizeak, gastu arruntak eta inbertsiokoak, toki entitateen finantza-egoera, zein neurritakoa den baliabide berekirik eza edo baliabide horien erabilera, eta abar.

Iruña eta beste udal askoren berezitasunek zilegi egiten dute funtsak dituen birbanaketa-helburu orokorrak errespetatuz udal horien berariazko gastu-beharrizanei erantzuten dieten formulak ezartzea; ez, ordea, formula horiek gainerako udalen aurka bazterkeria-elementu gisa erabiltzea. Beraz, nahitaezkoa da, batetik, Nafarroako eskualdeen arteko lurralde- eta dotazio-orekarako funts bat eratzea, eta, bestetik, gutxieneko kantidad bat egotea udal izateak berez ekartzen dituen oinarritzko beharrianen udalerriek aurre egin ahal izan diezaieten.

6.- Kapital transferentzietarako funtsaren zuzkidura toki-programazioko inbertsioetarako erabiliko da, eta Nafarroako Gobernuak plan zuzentzaileak osoki hartuko ditu bere gain. Halaber, funtsa

banatzeko prozedurak azpiegituren defizit orokorraren indizearen ponderazioa handitu beharko luke, formula objektiboen bidez zuzentzeko lurraldeen arteko desorekak eta azpiegitura arloko gabeziak, eta ikuspegi sozial eta ekonomikotik behartsu diren eremuetan toki garapeneko ekimenen alde egiteko.

III

Eginiko azken aldaketaren ondoren, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 123. artikulua zehazkiago arautzen du Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetako partaidetzaren norainokoa, eta udal agintaldi bakoitzaren bigarren urteko lehen sei hilekoan Nafarroako Gobernuak, Toki Araubideko Foru Batzordeak txostena egin ondoren, Foru Parlamentuari arau-proiektu bat igorriko diola ezartzen du. Arau-proiektu hori kasuan kasuko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrei buruzkoarekin batera igorriko du, eta toki entitateek Nafarroako zergetan parte hartzeko fondoaren zenbatekoa eta fondo hori banatzeko formula finkatuko ditu, hurrengo lau aurrekontu-ekitaldietarako, justizia eta proportzionaltasun irizpideen arabera. Zuzenketa horrek amaitzen du gobernuek behin eta berriro agertu izan duten betebeharrak ez betetzeko jokabidea.

IV

Printzipio zuzentzaile horiek betetzeko, foru lege honek, lehenik, toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte hartzeko fondoaren zenbateko osoa finkatzen du, eta, hurrena, ekitaldi bakoitzerako esleituriko parte-hartzearen zenbatekoa banatzeko sistema, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legeko 123. artikuluko 2. idatz-zatiak xedatuari jarraikiz, transferentzia arrunt, kapital-transferentzia eta bestelako laguntzen bitartez.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legeko 123.3 artikulua xedatuari jarraikiz, transferentzia arruntak udalen eta kontzejuen artean banatuko dira justizia eta proportzionaltasun irizpideak aintzat hartu beharko dituen banaketa-formula baten bidez, printzipio handi horiek gauzatzen dituzten zenbait parametro oinarritzat hartuz.

Halatan, foru lege honek transferentzia arrunten fondoaren banaketa bat planteatzen du, ekitate horizontalaren printzipioa aplikatzen duena; horrela, toki entitate bakoitzaren gastu premien arabera eta ahalmen fiskalaren alderantzira egiten da banaketa, horrela bermatuz gastu premia

gehiago edo/eta baliabide berekiak eskuratzeko ahalmen gutxiago duenak gehiago jasotzen duela.

Banaketa-sistemak hiru maila ditu. Lehenik, Iruñeko Udalarari esleipen bat egiten zaio, Iruñeko biztanle-kopuruaren eta gainerako udaletakoaren arteko proportzioaren arabera. Bigarrenik, udalen artean fondoaren gainerakoaren birbanaketa antolatzen da, eta, azkenik, kontzejuek bere udalarari esleitu zaion kopuruan izan beharreko parte-hartzea zehazten da, kontzejuaren biztanle-kopuruaren arabera.

Bigarren mailari dagokion banaketa-sistema udalerrri bakoitzerako bi indize lortzean datza; bata gastu-premiei dagokie, eta bestea, ahalmen fiskalari. Horiek zenbatesteko metodoak Nafarroako toki sektoreari buruz eskueran dagoen kontabilitate-informazioari estatistika-prozedurak aplikatuz prestatu dira. Ahalmen fiskalaren indizeak 0,3135eko ponderazioa dauka; hori da, hain zuzen ere, finantzatu beharreko gastu arruntaren guztizko kopuruaren gain indize horretan ordezkaturiko toki-baliabide ekonomikoen baturak egiten duen ehunekoa. Baliabide horiek hirilur eta landalurraren kontribuzioak, herrilurraren balio katastrala, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga eta jarduera ekonomikoen gaineko zerga dira.

Gastu-premien indizea lortzen da toki entitate-etako gastu arruntan eragin handiena daukatela estatistikoki demostratu duten bost aldagaien konbinazio linealetik, horietako bakoitzak gastua azaltzeko duen ahalmenaz ponderaturik. Aldagaiak hauexek dira: entitate bakoitzeko biztanle-kopurua, hirilurraren azalera netoa, 65 urtetik gorako biztanle-kopurua, entitate banakatuen kopurua eta udal bakoitzean hirigunetik kanpo biztanleria duten entitate banakatuen kopurua.

Hirugarren banaketa-mailak kontzejuen parte-hartzea zehazten du, udalarari esleituriko zuzkiduratik abiatuz. Parte-hartze hori kalkulatzeko, udalarari esleiturikoa % 30ekin eta udaleko guztizko biztanle-kopuruaren gain kontzejuko biztanleek egiten duten proportzioarekin biderkatzen da.

Parametro horrek adierazten du gaur egungo eskumen-banaketa-rekin kontzejuei dagokien batez besteko gastu-proportzioa. Orain arte indarra zeukan sistemarekiko haustura larria egitea ez da banaketa-formula berriaren helburua; horregatik, beharrezkotzat jo da trantsizio-prozedura bat ezartzea.

Banaketa-rekin bigarren mailako udalari dagokien asignazioen koefiziente zuzentzaile bat ezartzen da, populazioaren tamainaren arabera handitzen dena, eta udal bakoitzeko biztanleko 0,00002tan finkatu dena; horrela saihesten dira

entitateen tamainaren mailaketa arbitrarioak zekartzan jauzi akatsak.

Kapital transferentzietan dagokienez, euren banaketa 2001-2003 eperako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko uztailaren 3ko 2/2000 Foru Legean ezarri da, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legeko 123. artikuluko 4. idatz-zatian ezarritakoari jarraituz. Baina sistema berriak zenbatekoaren gorakada handia eraginen du, eta puntuazio handia lortu arren zuzkidura ekonomiko eskasagatik baztertu ziren eskabideen multzo kopuruak onartzea ekarriko du.

Fondoa banatzeko azkeneko kapitulari "bestelako laguntzak" deritza, eta bertan sarturik daude Iruñeko Udaleri "Iruñeko Hiriburutza Agiria" kontzeptuagatik dagokion zuzkidura; gainerako toki entitateetarako zuzkidura bat, zeina linealki banatzen baitaie guztiei, udal izateak berez ekarzen dizkien oinarriko beharrezko udalerriek aurre egin ahal izan diezaieten; funts berri bat, lurralde- eta dotazio-orekarako, zeina banatuko baita babes ofizialeko etxebizitzetarako lurzorua- ren plangintza, alokatzeko etxebizitza publikoa, etxez etxeko laguntzako zerbitzua, garapen-agen- tzietako parte-hartzea, etorkinentzako plan inte- gralak eta bestelako alorretan udal politika sozial bat aplikatzeari lehentasuna emanaz eta toki enti- tatearen egoera sozioekonomikoaren arabera, kontuan izanik pertsona langabetuen indizea (bereziki, emakumeena eta 50 urtetik gorakoena) Nafarroako kopuru osoarekiko, lehen sektorean lanean dihardutenen kopurua, biztanleria-galerak, edo hezkuntza-, osasun-, aisialdi- eta bestelako zerbitzuak eskueran dauden ala ez.

Azkenik, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 72.2 artikuluan interes komunak babestu eta sustatze- ko eraturiko toki entitateen federazio edo elkarte- entzako laguntza ekonomikoari buruz ezarritakoa betetzeko zuzkidura kontuan hartzen da.

V

Azkenik, toki entitateek erabiltzen eta garatzen dituzten eskumenei eta euren finantzaketari buruz kezka handia dagoenez gero, Nafarroako Gobernuaren, udalen, kontzejuen eta mankomunitateen artean zerbitzuak zuzenean emateari dagokionez eskumenak behin betiko mugatuko dituen toki hitzarmen bat egiteko oinarri batzuk presta daitez- zen proposatzen da, zerbitzuen kostua behar bezala zenbatetsi ahal izateko.

I. KAPITULUA Zuzkidura osoa eta eguneratzea

1. artikulua. Fondoaren zuzkidura.

Toki entitateek Ogasun Publikoaren tributuetan parte hartzeko Fondorako zuzkidura Nafarroako aurrekontu orokorretan ageri diren zuzeneko eta zeharkako zergen dirubilletaren % 15 izanen da. Hortaz, 2001eko ekitaldirako, guztira 52.198.800.000 pezeta zuzkidura ezartzen da.

2. artikulua. Fondoaren banaketa.

2001eko ekitaldirako esleituriko parteen zen- batekoa honela banatuko da:

I. Transferentzia arruntak 32.089.469.992 pezeta.

II. Kapital transferentziak 13.049.700.000 pezeta.

III. Bestelako laguntzak:

A. Iruñeko Udaleri, Hiriburutza Agiriagatik 2.316.750.008 pezeta.

B. Nafarroako gainerako udalei: 2.710.000.000 pezeta.

C. Lurralde- eta dotazio-orekarako fondoa: 2.000.000.000 pezeta.

D. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazio- ari 32.880.000 pezeta.

3. artikulua. Aurrekontuko kontsignazioa.

Nafarroako 2002, 2003 eta 2004ko aurrekontu orokorretan, toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte hartzeko fondoaren kontsignazioa izanen da aurreko ekitaldian Foru Ogasunak bildutakoaren % 15 egiten duen kopu- rua, transferentzia arruntetan, kapital transferen- tzietan eta bestelako laguntzetan banatuta.

Kapital transferentzietan dagokien kontsignazioak fondoaren % 25 egiten du. 2002, 2003 eta 2004. urteetarako transferentzia arruntetarako eta bes- telako laguntzetarako diru kopurua Nafarroako aurrekontu orokorretan ageri den fondoaren zen- bateko osoaren % 75 izanen da.

II. KAPITULUA Transferentzia arruntzen asignazioa

4. artikulua. Transferentzia arruntzen hasierako asignazioa Iruñeko Udalarentzat.

Hasiera batean Iruñeko Udaleri dirutza hau asignatuko zaio: 2. artikuluko I. idatz-zatian aurrei- kusitako zuzkidurari udal horrek Nafarroako popu- lazio osoari buruz duen biztanle portzentajea apli- katzetik sortzen dena.

5. artikulua. Gainerako udalen artean banatuko den dirutza.

2. artikuluko I. idatz-zatiko dirutza osoa, Iruñerako asignazioa kendu ondoren, hasiera batean Nafarroako gainerako udalen artean banatuko da beren banaketa indize ponderatuarekiko proportzio zuzenean.

6. artikulua. Gainerako udaletarako hasierako asignazioa.

Udal bakoitzerako hasierako asignazioa honekin kalkulatzeko, banatuko den dirutzari udal bakoitzerako banaketa-indize ponderatua aplikatuko zaio. Banaketa-indize ponderatua, berriz, gastu premien eta ahalmen fiskalaren indizeen arteko diferentzia kalkulatuaz lortzen da, honako urrats hauek eginez:

a) Gastu premien indizea gastu premiaren bost aldagai adierazlearen konbinazio linealaren bidez lortzen da, haietako bakoitzak gastu horren azalpenak emateko duen ahalmenaren arabera ponderaturik.

Erabilitako aldagaiak honako hauek dira:

- Udal bakoitzeko populazioak Nafarroako populazio osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea.

- Udal bakoitzaren hirilurraren azalera netoak Nafarroa osoko hirilurren azalera osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea. Hau da hirilurraren azalera netoa: planoaren araberrako zabaleraren (azalera grafikoaren) eta lurzatien batura gisa duen zabaleraren (azalera alfanumerikoaren) arteko diferentziaren ondoriozkoa.

- Udal bakoitzeko 65 urtetik gorakoek populazioak Nafarroa osoko 65 urtetik gorakoek populazio osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea.

- Udal bakoitzean hirigunetik kanpo populazioa duten entitate banakatuen kopuruak Nafarroa osoan hirigunetik kanpo populazioa duten entitate banakatuen kopuru osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea.

- Udal bakoitzeko entitate banakatuen kopuruak Nafarroa osoko entitate banakatuen kopuruari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea.

b) Ahalmen fiskalaren indizea lortzeko, udalen ahalmen fiskala eta ondare ahalmenaren adierazgarri diren lau aldagaien konbinazio lineala erabiliko da, urte eredu baterako aldagai bakoitzari dagokion dirubilketak dirubilketen kopuru osoari

buruz duen pisuaren arabera ponderaturik. Erabiliko diren aldagaiak honako hauek dira:

- Udal bakoitzeko Hirilur Kontribuzioaren likidazio oinarri doituak Nafarroa osorako (Iruña alde batera utzirik) tributu horren likidazio oinarri doitu baturari buruz egiten duen portzentajea. Oinarriak koefiziente zuzentzaile baten bidez doitzen dira merkatu balioetara, balioak handitzen dituen merkatu baliotik urruntzen diren heinean.

- Udal bakoitzeko Landalur Kontribuzioaren likidazio oinarri doituak Nafarroa osorako (Iruña alde batera utzirik) tributu horren likidazio oinarri doitu baturari buruz egiten duen portzentajea.

- Udal bakoitzeko Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko Zergaren eskubide likidatuak Nafarroa osorako (Iruña alde batera utzirik) tributu horren eskubide likidatu baturari buruz egiten duen portzentajea.

- Udal bakoitzeko herrilurraren balio katastrala Nafarroa osoko (Iruña alde batera utzirik) balio horien baturari buruz egiten duen portzentajea. Kontzejuak beren mugapean dituzten udalen kasuan, kontzejuetan ez dauden herrilurren balioa bakarrik hartuko da kontuan.

- Udal bakoitzeko jarduera ekonomikoaren gaineko zergak Nafarroa osoan (Iruña alde batera utzirik) zerga horren ondorioz egiten den guztizko dirubilketari buruz egiten duen portzentajea, udal gaitzirik kontuan hartu gabe, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legea betez Nafarroako Gobernuak eginiko erregistroaren arabera.

c) Gastu premien indizeari ahalmen fiskalaren indizea (0,2642 faktoreaz ponderaturik) kenduz lortzen da udal bakoitzarentzako banaketa-indizea, honako formula honen arabera:

$$FTC = 0,9206 \times PPOB + 0,2118 \times PMA65 + 0,2964 \times PURB + 0,0226 \times PNDISEM + 0,0051 \times PENTSING - 0,1801 \times CTU - 0,0282 \times CTR - 0,0717 \times IAE - 0,0753 \times IVTM - 0,1012 \times VCC$$

Non hau ulertu behar den:

- FTC udal bakoitzaren banaketa-indizea da.

- PPOB udal bakoitzaren populazioak Nafarroako populazio osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea da.

- PURB Udal bakoitzaren hirilurraren azalera netoak Nafarroa osoko hirilurren azalera osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea da. Hau da hirilurraren azalera netoa: planoaren araberrako zabaleraren (azalera grafikoaren) eta lurzatien batura gisa duen zabaleraren

(azalera alfanumerikoaren) arteko diferentziaren ondoriozkoa.

- PMA65 Udal bakoitzeko 65 urtetik gorakoen populazioak Nafarroa osoko 65 urtetik gorakoen populazio osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea da.

- PNDISEM Udal bakoitzean hirigunetik kanpo populazioa duten entitate banakatuaren kopuruak Nafarroa osoan hirigunetik kanpo populazioa duten entitate banakatuaren kopuru osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea da.

- PENTSING Udal bakoitzeko entitate banakatuaren kopuruak Nafarroa osoko entitate banakatuaren kopuruari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea da.

- CTU Udal bakoitzeko Hirilur Kontribuzioaren likidazio oinarri doituen Nafarroa osorako (Iruña alde batera utzirik) tributu horren likidazio oinarri doituen baturari buruz egiten duen portzentajea da. Oinarriak koefiziente zuzentzaile baten bidez doitzen dira merkatu balioetara, balioak handitzen dituen merkatu baliotik urruntzen diren heinean.

- CTR Udal bakoitzeko Landalur Kontribuzioaren likidazio oinarri doituen Nafarroa osorako (Iruña alde batera utzirik) tributu horren likidazio oinarri doituen baturari buruz egiten duen portzentajea da.

- IVTM Udal bakoitzeko Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko Zergaren eskubide likidatuak Nafarroa osorako (Iruña alde batera utzirik) tributu horren eskubide likidatuaren baturari buruz egiten duen portzentajea da.

- VCC Udal bakoitzeko herrilurraren balio katastralak Nafarroa osoko (Iruña alde batera utzirik) balio horien baturari buruz egiten duen portzentajea da. Kontzejuak beren mugapean dituzten udalen kasuan kontzejuetan ez dauden herrilurren balioa bakarrik hartuko da kontuan.

- IAE Udal bakoitzeko jarduera ekonomikoaren gaineko zergak Nafarroa osoan zerga horrek izandako guztizko dirubilketari buruz egiten duen portzentajea da, udal gainkargak kontuan hartu gabe, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legea betez Nafarroako Gobernuak eginiko erregistroaren arabera.

d) Aurreko idatz-zatian lortutako banaketa indizeak udal bakoitzerako populazioaren tamainaren arabera kalkulatu den faktore zuzentzaile batez ponderatuko dira; hain zuzen ere, unitatea gehi populazioaren produktua bider 0,00002 izanen da faktore hori. Udalen batean ateratzen den bana-

keta indizea negatiboa baldin bada, zero balioa emanen zaio, eta banaketa indizeak gainerako udaletarako birkalkulatuko dira, halako moduan non horien guztien batuketa unitatea bezainbeste izanen den. Banaketa indize ponderatu horixe aplikatuko zaio banatu beharreko kopuruari, kopuru hori udal bakoitzari hasiera batean dagokiona kalkulatzeko 5. artikuluan ezarritako moduan kalkulatu ondoren, hain zuzen ere.

7. artikulua. Kontzejuentzako hasierako asignazioa. Beren mugapean kontzejuak dituzten udalen kasuan, aurreko artikulua arabera kalkulatuak parteari kontzejuen artean banatzeko zati bat kenduko zaio. Entitate hauen parte biderketa honen bidez lortuko da: udalaren dotazioa bider % 30 bider kontzejuko biztanleek udaleko populazio osoari buruz egiten duen portzentajea. Geratzen den dirutza da udal bakoitzaren hasierako asignazioa.

8. artikulua. Erabilitako aldagaiak.

1. Nafarroako Udalei banaketan dagokiena kalkulatzeko premiazko aldagaien balioak lortzeko, foru lege honen eranskinean jasotako iturriak erabiliko dira. Aldagai guztien erreferentzia urtea hau izanen da: banaketa egiten den urteko maiatzaren 1ean Estatistika Institutu Nazionalak udalen populazioaren estatistikaren datu ofizialak dauzkana. Erreferentzia urteko daturik ez bada, dauden azken urtekoa hartuko da.

2. Artikulu honetan ezarritakoa galarazi gabe, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren datutzat hartzen da Toki Administrazioiko Departamentuan Toki Ogasunen Foru Legearen arabera aurkeztu behar zen azken ekitaldiko kontuen espedientetik lortzen dena edo bestela ekitaldi horrexetako aurrekontuaren likidazio espedientetik lortua, Toki Ogasunen Foru Legeko 227.2 artikuluan eta aurrekontuen eta gastu publikoaren arloan aipatu foru legea garatzen duen 270/1998 Foru Dekretuko 84. artikuluan xedatutakoaren arabera. Aurreko hori ez baldin bada eskuratu, eskura den azken datua eguneratuko da, ehuneko 10eko urteko tasa aplikatuz.

3. Kontzejuei dagokien zatia kalkulatzeko erreferentzia urtetzat honako hau hartuko da: banaketa egiten den urteko maiatzaren 1ean Estatistika Institutu Nazionalak bai udalen populazioaren estatistikaren datu ofizialak bai Nafarroako Estatistika Institutuak kontzejuen populazioaren estatistikaren datuak dauzkana, bi-biak urte berari buruzkoak betiere.

4. Aurreko zenbakietan ezarritakoagatik ere, banaketaren aldagaietan eragina duten udal edo kontzejuen bereizketa edo anxio prozesuak ger-

tatzen direnean, aldagaien zenbatekoa berriro kalkulatu da banaketa egiten denean duten egoera administratibora egokitzeko, baldin eta egoera administratibo horri buruzko datu ofizialik ez bada.

9. artikulua. Ordainketa

1. Toki entitateek Nafarroako Ogasun Publiko-ko tribuuetan parte hartzeko fondoko diru-kopuruak lau alditan ordainduko dira ekitaldi bakoitzean, hiruhileko natural bakoitzeko lehenengo hamabostaldian, hain zuzen ere.

2. Lehenengo bi ordainketek aurreko ekitaldian behin betiko harturikoaren ehuneko 25 eginen dute.

3. Hirugarren ordainketan toki entitate bakoitzari dagokion urteko azkeneko asignazioa kalkulatu da eta aurreko ordainketei erantsirik asignazio horren ehuneko 75 osatu arteko kopurua ordainduko. Eta gelditzen dena laugarren hiruhilekoa bukatzerako ordainduko da.

4. Udalen eta haien mugapean dauden kontzejuen arteko hitzarmen sinaturik baldin bada, entitate horiei pagatzen zaiena sinatutako hitzarmenean ageri den moduan egiten ahal da, banaketa-formularen aplikazioaren arabera entitate bakoitzari hasieratik dagokiona galarazi gabe.

5. Nafarroako Gobernuak aurreko diru kopuruak ordaintzen atzeratzeak toki entitateek dagozkien korrituak kobratu ahal izatea ekarriko du.

III. KAPITULUA

Kapital transferentzien asignazioa

10. artikulua. Kapital transferentzietarako partearen banaketa.

Kapital transferentzietarako partearen zenbatekoa 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legean eta hori garatzen duten xedapenetan xedaturikoaren arabera banatuko da, ekitaldi bakoitzean lortutako zerga bilketari dagokion zenbatekoaren goerarekin.

IV. KAPITULUA

Gainerako laguntzen asignazioa

11. artikulua. Gainerako laguntzen banaketa.

1. Iruñeko Udalarik "Iruñeko Hiriko Hiriburutza Agiria" delakoagatik eman beharrekoari dagokionez, beste laguntzen partearen zenbatekoa agiri hori ematen duen foru legean xedaturikoaren arabera arautuko da.

2. Nafarroako gainerako udalei eman beharrekoak dagokionez, beste laguntzen partearen zen-

batekoa, 2. artikuluko B) letrako III. idatz-zatian ezarritakoa, zenbateko finko eta berdinetan banatuko zaie Nafarroako udal guztiei, hiriburuari izan ezik, udal izatetik heldu diren oinarriko beharrei erantzuteko gutxieneko gisa.

3. Lurralde- eta dotazio-orekarako fondoa

Fondo berri bat, Nafarroako eskualdeetarako lurralde eta dotazio orekarako fondoa, alegia, sortu da, garapenean, gizarte ongizatean eta azpiegiturak erdiesteko aukeretan toki entitateen artean dauden desberdintasunak gutxiagotzeko. Fondo hauen asignazioa Nafarroako udal guztien artean egiten da, Iruñekoa kenduta, Nafarroako Gobernuak Parlamentu honi hiru hilabeteko epean igorriko dion lege proiektuan azalduko den formula objektibo bat erabiliz. Hona irizpideak:

a) Babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzekeko lurzoru eskuragarritasuna (zuzeneko proportzioan).

b) Udalek etxebizitzaren errentamendu publikoa sustatzea (zuzeneko proportzioan).

c) Udalerrian hutsik dauden etxebizitzaren portzentajea Nafarroako etxebizitzaren kopuru osoarekiko (zuzeneko proportzioan).

d) Azken 5 urteetan galdu den edo gehitu den populazioaren indizea (alderantzizko proportzioan).

e) Udalerrian dauden langabetuen portzentajea Nafarroako langabetuen kopuru osoarekiko (zuzeneko proportzioan).

f) Udalerrian dauden emakumezko langabetuen portzentajea Nafarroako emakumezko langabetuen kopuru osoarekiko (zuzeneko proportzioan).

g) Udalerrian dauden 50 urtetik gorako langabetuen portzentajea Nafarroako 50 urtetik gorako langabetuen kopuru osoarekiko (zuzeneko proportzioan).

h) Lehen sektorean aritzen den populazioaren indizea (zuzeneko proportzioan).

i) Etorkinei laguntza eman eta integratzeko plan integralik izatea (zuzeneko proportzioan).

j) Toki garapenekeko agentziaren bat izatea udalerrian edo horietako bati atxikirik egotea (zuzeneko proportzioan).

k) Hirugarren munduarekiko elkartasun eta garapenerako lankidetzaren programarik izatea (zuzeneko proportzioan).

l) Ospitale publikoetara dagoen distantzia, kilometrotan, eta bertaratzeko behar den batez beste denbora (zuzeneko proportzioan).

m) Osasun etxe hurbilenera dagoen distantzia, kilometrotan, eta bertaratzeko behar den batez besteko denbora (zuzeneko proportzioan).

n) Farmazia zerbitzu hurbilenera dagoen distantzia, kilometrotan, eta bertaratzeko behar den batez besteko denbora (zuzeneko proportzioan).

o) Hizkuntza eredu guztiak (lehen eta derrigorezko bigarren hezkuntza, batxilergoa, unibertsitatea) dituzten ikastetxe publikoetara dagoen distantzia, kilometrotan, eta bertaratzeko behar den batez besteko denbora (zuzeneko proportzioan).

p) 0-3 urte bitarteko haur hezkuntzako modulu kopurua edo ikastetxe publiko hurbilenera dagoen distantzia, kilometrotan, eta bertaratzeko behar den batez besteko denbora (zuzeneko proportzioan).

q) Udalerrian, zaharrentzako zentroetan, laguntza behar dutenentzako dagoen plaza kopurua, edo zentro publiko hurbilenera dagoen distantzia, kilometrotan, eta bertaratzeko behar den batez besteko denbora (zuzeneko proportzioan).

r) Zaharrentzako edo minusbaliatuentzako etxeko laguntza zerbitzurik dagoen (zuzeneko proportzioan).

s) Mankomunitate bidezko zerbitzu administrazioerik dagoen ukitutako populazioen kopuruarekiko (zuzeneko proportzioan).

t) Udaleko musika eskolarik dagoen (zuzeneko proportzioan).

u) 100 langile baino gehiago dituen industria gune hurbilenera dagoen distantzia, kilometrotan, eta bertaratzeko behar den batez besteko denbora (zuzeneko proportzioan).

v) Gune eszeniko iraunkorretara dagoen distantzia, kilometrotan, eta bertaratzeko behar den batez besteko denbora (zuzeneko proportzioan).

4. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari eman beharrekoa transferentzia arruntentzat foru lege honen 9. artikuluan ezarritako modu berean ordainduko da.

Xedapen gehigarriak

Lehenbizikoa. Toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte-hartzeko fondo orokorraren transferentzia arruntentzat (Toki Administrazio kontseilariak ekainaren 25ean emandako 1999. urterako behin-behineko banaketa ezartzen duen 150/1999 Foru Aginduaren arabera eta 2000. urterako behin-behineko banaketa ezartzen duen Toki Administrazio kontseilariaren 1217/2000 Foru Aginduaren arabera

eginak) ez dira behin betiko bihurtuko ekitaldiko behin betiko datuetara egokitu arte.

Bigarrena. Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentura igorriko ditu 2002-2004 urteetarako Nafarroako toki itun bat egiteko oinarriak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren, Parlamentuko taldeen eta toki entitateen lankidetzarekin, bertan azter ditzaten bi administrazioek toki entitateen eskumenen esparrua, egiaz betetzen dituzten lanak eta horiek ekartzen dizkieten kostuak, betiere toki autonomiarekiko eta Nafarroak udalen arloan duen tradizioarekiko begirunean oinarrituta eta subsidiaritatearen printzipioa kontuan harturik.

Hirugarrena. 2002 eta 2003. urteetarako kapital transferentzia gisa behar diren diru kopuruak, 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legean ezarritakoak, lehendik finkaturik duten zuzkidurari dagokionez gehituko dira, foru lege honen 1. artikuluan fondoaren zuzkidura egiteko ezarritako irizpideen arabera ekitaldi horietan kapital transferentzietarako ateratzen den kopuruan.

2002 eta 2003ko ekitaldietarako kapital transferentzien kopuruan egiten den gehikuntza hori erabiliko da aurrekontuan dirurik ez egoteagatik kontuan hartu ez ziren toki entitateen eskaerak sartzeko, uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legean garaturiko azpiegituren hiru urteko planean lortutako kalifikazioen ordena errespetatuz.

Azken xedapenak

Lehena. Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau erregelamenduz garatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

Bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

ERANSKINA

Banaketa-formulan aplikatutako aldagaiak eta iturriak

Udal bakoitzeko populazioa. Estatistika Institutu Nazionalak emana, urte bakoitzaren urtarrilaren 1a erreferentziazat harturik.

Kontzeju bakoitzeko populazioa. Estatistika Institutu Nazionalak emana, urte bakoitzaren urtarrilaren 1a erreferentziazat harturik.

Udal bakoitzeko 65 urtetik gorako populazioa. Estatistika Institutu Nazionalak emana, urte bakoitzaren urtarrilaren 1a erreferentziazat harturik.

Hirilur azalera netoa. Planoan agertzen den azalaren (azalera grafikoaren) eta lurzati batura gisa duenaren arteko diferentzia (azalera alfanumerikoa). Nafarroako Gobernuko Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak emana udalen populazioen erreferentzia urte bererako.

Entitate banakatutzat hartzen diren populazio-guneen kopurua. Estatistika Institutu Nazionalak emana.

Populazioa herrigunetik kanpoan duten entitate banakatutzat hartzen diren populazio-guneen kopurua. Estatistika Institutu Nazionalak emana.

Hirilur Kontribuzio Doituaren Likidazio Oinarria.

Honako hau da:

Udal bakoitzeko Hirilur Kontribuzioaren Likidazio Oinarria bider merkatuko balioetara doitzeko koefizientea. Nafarroako Gobernuko Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak ematen ditu biak, eta horretarako datuak Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskaletik hartzen ditu, udalen populaziorako erabilitako erreferentzia urte berari buruz.

Udal bakoitzaren Landalur Kontribuzioaren Likidazio Oinarria. Nafarroako Gobernuko Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak ematen du, eta horretarako datuak Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskaletik hartzen ditu, udalen populaziorako erabilitako erreferentzia urte berari buruz.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren eskubide likidatuak. Toki Administrazio Departamentura igorritako udaleko kontabilitate likidazioetatik lortzen da. Igorri ez baldin badira, foru lege honen 10. artikuluko 2. puntuan ezarritako irizpidearen arabera kalkulatu da.

Herrilurraren balio katastrala. Udaletako populazioarentzako erreferentzia urte berean udal bakoitzaren herrilurrek duten balio katastrala da.

Beren mugapean kontzejuak dituzten udaletako kontzejuen herrilurrak kanpo geratzen dira. Nafarroako Gobernuko Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak ematen du, eta horretarako datuak Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskaletik hartzen ditu.

Foru Lege proposamena, saltoki handietarako zerga bat sortzekoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 18an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Biltzarrak, 2001eko ekainaren 14an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Demokraten Elkargu-nea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako saltoki handietarako zerga bat sortzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori 2001eko maiatzaren 15eko 51. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Saltoki handietarako zerga bat sortzeko Foru Lege proposamena ohiko prozeduraz bideratzea.

Bigarrena. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epe bat irekiko da, 2001eko irailaren 13ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2001eko ekainaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, etxeko indarkeriari eta bikotekideen artekoari aurrea hartzeko neurriei buruzkoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 18an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Biltzarrak, 2001eko ekainaren 14an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Demokraten Elkargu-nea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako etxeko indarkeriari eta bikotekideen artekoari aurrea hartzeko neurriei buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori 2001eko maiatzaren 2ko 46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Etxeko indarkeriari eta bikotekideen artekoari aurrea hartzeko neurriei buruzko Foru Lege proposamena ohiko prozeduraz bideratzea.

Bigarrena. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Gizarte Gaietako Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epe bat irekiko da, 2001eko irailaren 13ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2001eko ekainaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa zenbatekoa izanen den eta 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontualdian nola banatuko den ezartzen duena

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 18an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Biltzarrak, 2001eko ekainaren 14an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa zenbatekoa izanen den eta 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontualdian nola banatuko den ezartzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori 2001eko apirilaren 20ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehen. Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa zenbatekoa izanen den eta

2002tik 2004ra bitarteko aurrekontualdian nola banatuko den ezartzen duen Foru Lege proposamena ohiko prozeduraz bideratzea.

Bigarrena. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Toki Administrazioako Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epe bat irekiko da, 2001eko irailaren 13ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2001eko ekainaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Batasun kanpotik etorri eta nazioartean lehia handikoak diren elikagaien etiketen aldaketa proposa dezan

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Nafarroako Gobernua premiatzen da Batasun kanpotik etorri eta nazioartean lehia handikoak diren elikagaien etiketen aldaketa proposa dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 18an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko ekainaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 192 eta 193. artikuluetan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran izapida dadin:

Zaincuria oso labore tradizionala izan da eta da, gaur egun, Ebro ibaiaren bailaran, oso berezia Nafarroan.

Labore hori oso sozializat jo daiteke, lan-eskurako eskari handia sortzen duelako, hala bilketan nola industrializazioan.

Eskuarki, kontserbagintzako industriak landa-ingurunean kokaturik daude; beraz, landa-ingurunean, jarduera ekonomikoan eta lanekoan bi funtzio betetzeko balio dutela esan daiteke. Enplegu ugari ematen dute (oro har, emakumeentzako);

beraz, esan daiteke mundu horri eusteko eragile garrantzitsu bat dela.

Azken urteotan, zaincurirako azalerak beherakada handia izan du, eta produktzioa ere, nahiz eta beherakada hain nabaria izan ez den, kalteak jasaten hasi da, nagusiki, Hego Amerikako herrialdeen eta Txinaren lehia gogorraren ondorioz.

"Nafarroako Zaincuria" deiturak balio izan du gure produktuen kalitate handia kanpotik etorritako produktuetatik bereizteko, eta, horrela, labore horretarako irtenbide bat aurkitu da, eta horri eutsi ahal izan zaio.

Kontserba begetalen etiketari esker, kontsumitzaileak zer erosten duen jakin ahal izan du, eta, beraz, erosten duen produktuarekiko konfiantzan oinarrituriko babesa eskuratu ahal izan du.

Etiketetan informazioa emanez produktuen jatorria eta kalitatea bereizteko ahalegin horiek okertzen ari dira, azkenaldi honetan, argiak ez diren eta are okerrak diren etiketen ondorioz; horiek kontsumitzaileei nahasmena eragiten diete.

Elikagaien etiketa, aurkezpen eta publizitatearen arloan Europako legediak elkarri hurbiltzeko 2001/13/CE Europar Zuzentarauak, zeina uztailaren 31ko 1.334/99 Errege Dekretuaren bitartez legedi nazionalean gauzatu baita, kontsumitzaileen eskubide gisa jasotzen du, berariaz, etiketa zuzenak ezarri beharra.

Gure ustez, Espainiako araudian aurrerapenak egin daitezke eta egin behar dira, kontsumitzaileak produktuaren jatorria ezagutu ahal izan dezan; izan ere, askotan, kontsumitzaileak jatorrizko enpresaren sozietate-helbidearekin nahasten du.

Bi informazio horiek beharrezkoak izanik, bigarrena lehenari nagusitzen zaio, eta sinestarazten du enpresaren helbidea dagoen herrikoa dela produktua, nahiz eta, argi eta garbi, hori horrela ez

izan. Ildo horretako, arlo horretan Espainiako araua aldatu beharko litzateke, kontsumitzaileari informazio argia emateko.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau proposatzen dugu:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du Europar Batasunetik kanpoko nazioarteko lehia gogorra jasaten duten elikagaien (adibidez, zainzurien) etiketei dagokienez aldaketa egitea proposa dezan, produktuaren

jatorria argi adierazteko eta kontsumitzailea okerreko ondorioetara ez iristeko.

Halako etiketek nahitaezkoak izan beharko lukete ontzi-mota guztietan. Behar adina ikusi ahal izateko moduko letrak eta ikurrak izan beharko lituzkete, inoiz ez helbideei edo etiketako beste informazioei buruzko letrak baino txikiagoak.

Iruñean, 2001eko ekainaren 11n

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Foru Legearen aldaketa proposa dezan, nafar ezgaituak eta araubide komunekoak parekatzearen

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Foru Legearen aldaketa proposa dezan, nafar ezgaituak eta araubide komunekoak parekatzearen".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 18an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko ekainaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

"Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Parlamentuko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergari eta Ondareari buruzko Foru Legearen gaur egungo testuak Nafarroako ezgaituei ekartzen dizkien ondorio baztergarriak zuzentzeko xedez foru lege horretan egin beharreko aldaketei

buruzkoa da mozioa, eta bere helburua da, gutxienez ere, kolektibo guztia berdintzea euren baldintza berak izanik tributuko araubide komunean ordaintzen dituzten pertsonekin.

Zioen azalpena

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Parlamentuko gainerako taldeek bezalaxe, hauxe egiaztatu ahal izan du, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak PFEZaren aldaketek ezgaituengan izanen dituzten eragin berri emateko agerraldia egin ondoren: PFEZari buruzko Legeak minusbalioasunei buruz egiten duen araubidea 2000rako aldatzeak kolektibo horretako ezkongabe gehienak, bereziki lan egiten dutenak, tributuko araubide komunean ordainduz baino egoera fiskal okerragoan uzten dituela.

Aipaturiko hori kontraesanean dago 2000rako aurrekontua onesteko eginiko aurrekontu-hitzarmenaren letra eta izpirituarekin; hartan, argi gertzen zen Talde Sozialistak PFEZari buruzko Legeari zuzenketa batzuk egitea proposatzen zuela, minusbaliatuen kolektiboari zegokionez, eta zuzenketa horiek 1999koa baino egoera fiskal hobean (hori jadanik lortu da) eta Espainiako Estatuaren gainerakoan kolektibo horrek duen egoera baino hobean (hori ez da oraindik lortu) utziko zituzten minusbaliatuak.

Hori dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak uste du konpromisoa daukala egoera hori gaintzeko behar diren neurriak proposatzeko, eta, lehen neurri gisa, honako erabaki proposamen hau aurkeztu du,

Parlamentuko Osoko Bilkurak onets dezan. Erabaki proposamenak konpromiso politiko bat izan behar du Nafarroako Gobernuarentzat, erreforma prestatzean izan duen parte-hartze aktiboarengatik eta 2000rako aldaketa fiskalaren proposamenak nafar herritar bat ere araubide komunean baino egoera okerragoan utziko ez zuela esan izateagatik.

Erabakiaren testua

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Pertsona Fisikoen Errentaren

gaineko Zergari eta Ondareari buruzko Foru Legea aldatzea proposa dezan, Foru Legearen gaur egungo testuak Nafarroako ezgaituei ekartzen dizkien ondorio baztergarriak zuzentzeko eta, gutxienez ere, kolektibo guztia euren baldintza berak izanik tributuak araubide komunean ordaintzen dituzten pertsonekin berdintzea lortzeko.

Iruñean, 2001eko ekainaren 15ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laneko jazarpen moralak ekiditeko neurriak har ditzan

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laneko jazarpen moralak ekiditeko neurriak har ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 18an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztzen ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko ekainaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babesean, laneko jazarpen moralari ("mobbing" deritzonari) buruzko mozio hau aurkeztu du, Parlamentuko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onets dadin.

Zioen azalpena

"Jazarpen moral" ("mobbing") izenaz ezagutzen dena jasaten duten langileen ehunekoa kezagarri izatera iristen ari da, Bizi eta Lan Baldin-

tzak Hobetzeko Europar Fundazioak Espainiako lan-merkatuari buruzko 21.5000 elkarrizketatan oinarriturik jakinarazitako ondorioen arabera eta Lanaren Nazioarteko Erakundeak 2000ko Lan Baldintzei buruz argitaraturiko Europako hirugarren inkestaren arabera, zeinak agertzen baitu Europako zenbait lurraldeetako langileen %9 inguruk jokabide hori pairatzen duela.

Laneko Higiene eta Segurtasunerako Institutu Nazionalak laneko jokabidearen patologia hori honela definitzen du: kanpo-indarkeria psikologikoa, pertsona batek edo gehiagok lan-ingurunean botere-erlazio asimetrikoan dagoen beste bati zuzentzen diona, sistematikoki eta denboran zehar (sei hilabete baino gehiagotan).

Laneko izu psikologikoko praktika horiek gauzatzen dira nork bere lana betetzearen aurkako ekintzetan eta eraso egindako pertsonaren komunikazioa edo informazioa manipulatzeko ekintzetan.

Lan-harremanetan fenomeno hau agertzeari mesede egiten dio uste izateak aginduzko estilo batek –menpekoak sistematikoki presionatuko dituen– errentagarritasun handiagoa lortzen duela. Lana antolatzeke modu berriengatik ere, emaitzak optimizatu nahi baitituzte giza faktorea kontuan hartu gabe.

Jokaera horren ondorioek eragin negatiboa dute bai hori jasaten duen pertsonarengan eta bai bere lan eta gizarte ingurunean ere, eta, baita ere lan egiten duen enpresan. Ukituriko pertsonak kalteak jasaten ditu bere osasunean (insomnia, antsietatea, estresa, depresioa, gaitz psikosomati-

koak), eta horrek, ezinbestez, eragina du beren lan errendimenduan eta lan giroan, eta lan istripuen kopurua ere handitzen du.

Hori guztia dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu du Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ondoko neurriak har ditzan:

- Enpresario eta langileentzako informazio eta dibulgazio plan bat sustatuko du osasunarentzat lantokian jazarpen moralak jasateak dakartzen ondorio negatiboak buruz, jazarpen moral hori lanaren antolamendurako eta lan harremanetarako arrisku faktoretzat har dadin. Ondorio horietarako, lantoki bakoitzak lan arriskuak ebaluatzerakoan kontuan hartuko du jazarpen moralak ere, eta hari aurre egiteko plangintza bat egingen da.

- Informazio plan bat egingen du laneko jazarpen moralari buruz, enpresetako ikuskatzailentzaren arduradunentzat, haren praktika aitortu dezaten hura jasaten duen pertsonak salatzen duenean edo antzematen duenean, prebentzioaren arloko zaintza eta kontrol eginkizunak bete daitezten.

- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fakultatiboaren artean zabalduko ditu laneko jazarpen moralak sortzen dituen ondorioak, behar bezalako diagnostikoa egin dezaten eta lanean sorturiko gaixotasun gisa har dadin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ondoko neurriak har ditzan:

- Behar diren neurriak hartuko ditu lan gaixotasunen katalogoa aldatu eta jazarpen hori jasaten duen pertsonari zor zaizkion eskubideak ezartzeko.

- Begiratuko du lan gaixotasunak eta lan istripuak kudeatzen dituzten Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileek beren ardurak har ditzaten lanean gertaturiko jazarpen moralak sorturiko ondorioak tratatu, zaindu eta birgaitzeko.

- Behar diren aldaketak sustatuko ditu Lanei Aurrea Hartzeko Legean, lantokiko jazarpen moralak lan arriskuei aurrea hartzeko arauen ez betetzeak sortzen diren zehapen larriekin.

Iruñean, 2001eko ekainaren 15ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentua Tuteran unibertsitate mailako ikasketak jartzearen alde azaltzen da

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentua Tuteran unibertsitate mailako ikasketak jartzearen alde azaltzen da".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 18an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko Eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatutako babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Parlamentuko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioa Tuteran unibertsitate-ikasketa presentzialak ezartzearen aldekoa da, eta, bestalde, horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da ikasketa horien ezarpena errealitatea izan dadin behar diren urratsak eman ditzan.

Mozioaren azalpena:

Azken asteotan, Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordean entzun ahal izan ditugu Tuterako Udalak eta Parlamentuko taldeek Tuteran unibertsitate-ikasketa presentzialak ezartzearen alde dauzkaten iritzia.

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen iritziz, bada garaia Nafarroako Parlamentuak gai horri buruz duen jarrera ofiziala zehatz dezan; horregatik, Osoko Bilkurak honako erabaki hau onets dezala proposatzen da:

1.- Nafarroako Parlamentuak Tuteran unibertsitate-ikasketak ezartzearen aldeko jarrera agertzen du.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ikasketa horien ezarpena errealitatea izan dadin beharrezkoak diren urratsak eman ditzan.

Iruñean, 2001eko ekainaren 14an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, entsegu kliniko bat egiteko eskatzen da, heroinazaleen mantentze tratamenduan heroinaren eraginkortasuna ikusteko

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, entsegu kliniko bat egiteko eskatzen da, heroinazaleen mantentze tratamenduan heroinaren eraginkortasuna ikusteko".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 18an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko ekainaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Osasunerako Mundu Erakundearen arabera, "drogamenpekotasunaren arloak daukan helburu nagusiak drogen erabilera ez-medikoari loturiko arazoan eraginari eta indarrari aurrea hartzea edo arintzea izan behar luke. Helburu hori askoz ere zabalagoa da drogen erabilerari aurrea hartzea edo erabilera hori murriztea baino". Osasunerako Mundu Erakundeak drogen benabarnetiko erabileraren arloan daramatzan politika terapeutikoei

osasunerako arriskuak murriztu eta droga-erabilzaileen gizarteratzea lortu nahi dute.

Espanian, toxikomanoei arreta emateko programak aldatu egin dira, aitortuta abstinentzia, desio litekeen bide bat bada ere, ez dela epe laburreko helmuga bat toxikomano gehientzat, eta beste bide terapeutiko batzuek —esate baterako ordezko drogak erabiltzeak— hobekuntza nabarmenak lortzen dituela opiazeo zaleen osasun fisikoaren eta adimen osasunaren kalteak murrizten eta haiek gizarteratzen. Kalteak arintzeko filosofia hori oinarri, 75/1990 Errege Dekretuak bideratzen du metadona programetan hasi ahal izatea Giza Inmunoeskasiaren Birusaren eramaile direnak edo patologia organiko latzak dituztenak. Berrikiago, 5/1996 Errege Dekretuak aurreko xedapenak zabaldu eta bideragarri egiten du metadona bidezko mantentze programetan sartzea HIESean negatibo ematen dutenak ere, programa hauetan ari diren pertsonen arrisku-jokareari aurrea hartu ahal izateko modu gisa.

Nafarroan ere, drogamenpekotasunerako tratamenduak bere bilakaera izan du, eta zabaldu egin da estrategia terapeutikoen aukera askorekin ahal den eta pertsona gehiagori arreta eman ahal izateko. Metadonaren bidezko mantentze programen osasun- eta gizarte-helburuek kalteak murriztea dute xede. Halere, opiazeozale direnen zati handi batek porrot egiten du programa honetan eta ez dute arazoari konponbidea emateko tratamendu eraginkorrik hartzen.

Halere, drogazaleen ehuneko 30 inguruk ez ditu onartzen egun eskuragarri dauden tratamenduak, metadona barne. Hori dela eta, Erresuma Batuan, Holandan eta Suitzan heroinaren eta beste agonista opiazeo batzuen erabilera terapeu-

tikoari buruzko saio batzuk egin dira gainerako bide terapeutikoei erantzuten ez dieten gaixoak egonkortzeko.

Suitzako 1.100 baino gehiago heroinomanorekin behaketa bidez eginiko azterlanetan eta Ginebran eginiko saio aleatorioan lorturiko emaitzen arabera, heroinarekin mantentze programetan ari diren heroinomanoek maizago izaten dutela harremana osasun sarearekin, osasun fisikoan eta adimen osasunean hobera egiten dutela, legez kanpoko beste droga batzuen erabilera gutxitzen dutela –bereziki kokainarena– eta behera egiten dutela ere drogen erabilera ez-legezkoarekin loturiko krimenek. Gainera, azterlan horiek agerian uzten dute heroinomanoentzako heroinan oinarrituriko programa terapeutikoen bideragarritasuna.

Ebidentzia zientifikoak –animaliekin eginiko esperimenduetan eta gizakien behaketan oinarrituak– iradokitzen digu heroina dela heroinomanoen osasun fisikoa, adimen osasuna eta betekizun sozialak mantentzeko biderik egokiena. Kalte gutxiago egiten dio osasunari eta aurkako efektu gutxiago dauzka morfina edo metadona bezalako beste ordeko batzuek baino. Ebidentzia horri laguntzeko, azken hamarkadan abian jarri dira edo garatzeko prozesuan daude, Europako zenbait herrialdetan heroinarekin mantentze tratamenduak egiteko programa batzuk. Bereziki, Suitzan eginiko behaketa bidezko azterlan luzetarakoaren esperientziak adierazten digu hoberako aldaketak somatzen direla beste estrategia terapeutiko batzuk erabilita arrakastarik lortu

ez den heroinomanoen osasun fisikoan, adimen osasunean eta betekizun sozialetan.

Andaluzian, saio kliniko bat eginen da benabarneko bidea erabiltzen duten heroinomanoen mantentzeko tratamenduan heroinak daukan eragingarritasunari buruz, behin Diputatuen Kongresuak Osasun Batzordearen bitartez halako saioak egiteko aukera zabaldu ondoren.

Praktika mediko egokiak berekin dakar egun eskuragarri dauden tratamenduen onura jasotzerik ez duten heroinomanoentzako beste konponbide batzuk aurkitzea.

Halaber, Foru Komunitateko heroinomanoen ahaideek, elkarte batean bilduta, bide horretako konponbide bat eskatu diete osasun arduradunei.

Hori guztia dela eta, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Foru Komunitateak Andaluzian egin behar den saio klinikoaren antzeko saio bat egin dezan, soilik gure erkidegoan nahiz Andaluziako autonomia erkidegoarekin aztergune bat baino gehiagoko lan bat eginez, beste erkidego batzuek ere hari atxikitze aukera izan dezaten.

2. Betiere, egindako azterlanak emaitza positiboak baldin baditu, Nafarroako heroinomanoei tratamendu errukiorra ematea planteatuko du.

Iruñean, 2001eko ekainaren 15ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, drogazaleenganako arretoa dela-eta zenbait neurri hartzeko eskatzen da

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, drogazaleenganako arretoa dela-eta zenbait neurri hartzeko eskatzen da”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 18an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta

bozketa Osasun Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamaiki baino lehen.

Iruñean, 2001ko ekainaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Substantzia psikoaktiboekiko mendekotasunak ondokoa du bereizgarri nagusia: substantzia era jarraituan kontsumitzea, kontsumo horrek ekarritako garrantziko arazoei begiratu gabe. Mendekotasun arazoetarako esku-hartzeak edo konponbideak ez dira izaten ez nahi bezain eraginkorrak, ez nahi bezain azkarrak ere, eta esku hartzeko modua ere ez da homogenea izaten, substantzia horietaz abusatzen duten pertsonen azpi populazio heterogeneoetan bizi direlako.

Badakigu substantzia batekiko mendekotasuna edukitzek konponbiderik baduela. Badago zer egirik, aurrera eman daitekeen jarduketarik, frogaturiko eragingarritasunarekin.

Nafarroako drogazaleei ematen zaien arretak adimen osasuneko sarea du ardatz nagusi, nahiz eta Gizarte Ongizate Departamentuak eta hezkuntza eta lan arloek ere esku hartzen duten.

Adimen Osasuneko sareak bere zentroak dauzka (propioak nahiz itunduak), sare moduan eratzeko diseinatu zirenak arreta eta espezializazio maila desberdinekin, zerbitzuen eskaintza osagarriekin eta zerbitzuen jarraikortasuna bermatzeko zirkuitu moduko funtzionamendurekin. Baina, Adimen Osasuneko Zuzendariordetzaren txostenetatik ondoriozta daitekeen moduan, "Adimen Osasuneko zerbitzuak osasun sisteman sartzeak ustekabeko ondorio bat izan du: zerbitzu horiek zentro desberdinetan zatituegi egotea. Funtsezkoa da, gure ustez, haien funtzionamendua drogazaleen eta haien familien behar objektiboetara erantzuteko behar bezain arina izatea".

Drogamenpekotasunari buruzko Foru Plana, besteak beste, drogen fenomenoan gertatzen diren aldaketei adi egoteko eta haiei konponbideak emateko sortu zen. Hori dela eta, azken urte hauetan esku hartzeari buruzko programa berriak jarri dira martxan, prebentzioaren, laguntzaren eta gizarteratzearen arloan.

Zerbait igo da sare publikoan lagundutako eta drogaren kontsumoaren ondoriozko arazoaren lehen diagnostikoa egin zaien gaixoen kopurua, eta kokainaren, sintesi-drogen edo substantzia anitzen kontsumoarekin loturiko kasu berriek ere gora egin dute; heroinaren eta alkohol kontsumoak, aldiz, gutxiago egin du gora.

Baliabide berezien espezializazioaren beharra planteatu izan da, arreta espezializatuagoa eta kasu kasu landu beharreko helburuei egokituagoa emateko (gaixotasun bitarikoa dutenei arreta ematea, tarteko helburuak lortzea eta abar).

Patologia bitarikoa gaixotasun batean bai adimen arazoek –botiken bidezko tratamenduekin sendatzen ez direnek–, bai eta edozein mendekotasunek elkarrekin eragiten dutenean gertatzen da; mendekotasunen artean abusuzko drogak egoten dira, gehienetan. Halere, halako gaixotasunak ukituriko gaixoetako batzuek bestelako mendekotasunak daukate: Interneteko mendekotasuna, erosketena edo sexu konpulsiboarena.

Dauzkagun datuen arabera, toxikomanoen ehuneko 70k adimen asaldura larriak dituzte.

Estimazio batzuen arabera, adimen gaixoen ehuneko 70 drogazaleak dira eta toxikomanoen ehuneko 80ek diagnostiko psikiatrikoren bat izaten dute.

Zailtasunak egoten dira gaixo horiei arreta emateko, gaizki definituriko sintomen koadro baten aurrean gaudelako, eta dauden botika tratamenduek eragingarritasun gutxi dutelako.

Badirudi laguntzako zerbitzuek gainezka egin dutela. Doako osasun laguntzarako eskubideak ez ditu Adimen Osasuneko Sareko erabiltzaile guztiak hartzen. Komunitate terapeutikoek izenpeturiko lankidetzak hitzarmenak ez dute bermatzen ez laguntzaren kalitatea, ez tratamendu-taldeen egonkortasuna ere. Sareko zerbitzuetako deribazioak ez dira era sistematiko eta egokian egiten. Zerbitzu horietara jotzen dutenen ahaideentzako laguntza eta orientabide teknikoak falta izaten dira.

Hori guztia dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Erabaki proposamena

1. Modu objektiboan azter dadila, ebaluazio-azterlanak eginez, zerbitzuen funtzionamendua, lorturiko emaitzak alderatuz lortu nahi den kalitate-ereduarekin.

2. Aldizka zentro itunduek (komunitate terapeutikoak) ematen duten laguntzaren kalitatea azter dadila.

3. Zentro itunduetako talde terapeutikoen jarraikortasuna berma dadila.

4. Erabiltzaileen doako laguntza berma dadila.

5. Adimen Osasuneko Sareari eman dakizkiola azpiegituretan eta langileetan behar dituzten baliabideak.

6. Azter dadila Nafarroako Foru Komunitatean patologia bitarikoak tratatzeko eta abusuzko drogen mendekotasuna.

Iruñean, 2001eko ekainaren 15ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan ekonomiko bat aurkez dezan Audenasak daukan A-15aren emakida berreskuratzeak ekarriko lukeen gastuari buruz

ERRETIRATUTAKO MOZIOA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan ekonomiko bat aurkez dezan Audenasak daukan A-15aren emakida berreskuratzeak ekarriko lukeen gastuari buruz".

Mahaiak, 2001eko ekainaren 18an egindako bileran, Nafarroako Demokraten Elkargunea Par-

lamentuko Taldeak aipatutako mozioa erretiratu zuela jakitun zegoela adierazi zuen. Mozio hori 2000ko urtarrilaren 31ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2002-2009 eperako Errepide Planean A-15a autobia bihur dezan

ERRETIRATUTAKO MOZIOA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2002-2009 eperako Errepide Planean A-15a autobia bihur dezan".

Mahaiak, 2001eko ekainaren 18an egindako bileran, Nafarroako Demokraten Elkargunea Par-

lamentuko Taldeak aipatutako mozioa erretiratu zuela jakitun zegoela adierazi zuen. Mozio hori 2000ko maiatzaren 29ko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

F saila:
GALDERAK

Telefonia mugikorreko erradiazio elektromagnetikoari buruzko azterlan bat egiteari buruzko galdera*FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 18an egindako bilkuran, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak telefonia mugikorreko erradiazio elektromagnetikoari buruzko azterlan bat egiteari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Batzarre Askotariko Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio andreak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoaren babesean, ondoko galderei ahal den bezain azkar idatzizko erantzuna emateko eskatzen du.

Joan den apirilaren 26an, Nafarroako Parlamentuak erabaki bat hartu zuen, Nafarroako Gobernuak premiatzeko behar diren neurriak har ditzan Nafarroako lurraldean kokaturiko eta eraikin publiko nahiz pribatuetan edo/eta biztanleak bizi

edo pasatzen diren lekuetatik hurbil instalaturiko telefonia mugikorreko oinarrizko estazioak izenekoen instalazioek sorturiko erradiazio elektromagnetikoari buruzko goitik beherako azterlan bat egin zezan.

Herritarren kexuak etengabeak direnez eta zenbat denbora iragan den ikusirik, interesgarria da aipatu azterlana ahal den bezain azkar bukatzea, Europar Batasunaren gomendioekin eta beste arau batzuekin alderatu ahal izateko, bereziki herritarrek uhin elektromagnetikoak jasateko mugei dagokienez.

Aipatu erabaki horri dagokionez:

1. Hasi al du Nafarroako Gobernuak aipatu azterlana?
2. Hasi bada, noizko aurreikusi da lan hori bukatzea?
3. Zein erakundek egingen du edo egiten ari da azterlan hori?
4. Neurtzeko zein protokolo erabiliko da azterlan horretan?

Iruñean, 2001eko ekainaren 8an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Bi marokoarrek pairatutako diskriminazio tratua dela-eta jarritako salaketari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 18an egindako bilkuran, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak bi marokoarrek pairatutako diskriminazio tratua dela-eta jarritako salaketari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Batzarre Askotariko Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio andreak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoaren babesean, ondoko galderari idatziz erantzuteko eskatzen du.

Joan den ekainaren 4an, Sos Arrazakeria elkarteak eta Arabiarren Elkarrekin publikoki salatu zuten Nafarroan bizi diren bi herritar marokoarrek jasan zuten diskriminazio tratua, eragotzi egin baitzitzaizen erabilera publikoko lokal batean, "Blues" pubean hain zuzen ere, inolako justifikaziorik gabe, baina oso litekeena da lokaleko arduradur-

nek, sakonean, arrazakeriazko arrazoiak edukitzea.

Zenbait elkartek salatutako moduan, jarrera horiek behin eta berriz gertatzen ari dira Nafarroako erabilera publikoko lokal batzuetan. Hori dela eta, joan den astelehenean, hilaren 4an, salaketa bat aurkeztu zuten Nafarroako Gobernuan Turismoari buruzko 1997ko azaroaren 17ko Foru Legea ez betetzeagatik; lege horretan ezartzen da arau-hauste larria izanen dela "bezeroen sarrera debekatzea eta bezeroak kanporatzea, justifikaturik gabeko kasuetan": Jardueta horiek 500.000 pezeta bitarteko isunekin eta establezimendua sei hilabete bitarte ixtearekin zehatu ahal izanen dira.

Hori guztia dela eta, ondoko galderari erantzutea nahi du:

Nafarroako Gobernuak zehapenik ezarri al die erabilera publikoko lokalen baten arduradunei, etorkinei emandako bazterkeriazko tratua dela eta (lokal batzuetara sartzea eragozte) behin eta berriz egindako salaketa publikoen aurrean?

Zein dira Nafarroako Gobernuak salaketa horren aurrean hartu dituen neurriak?

Iruñean, 2001eko ekainaren 11n

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Nafarroako Ehizari buruzko Batzorde Aholku-emaileko kideak izendatzeko irizpideei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 18an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Nafarroako Ehizari buruzko Batzorde Aholku-emaileko kideak izendatzeko irizpideei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta ondokoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Ehizaren plan estrategikoak ezarri zuten lehenestekoa zela gizarte partaidetzako organoen egoera aztertu eta zehaztea, Ehizaren Batzorde aholku-emailea eta Nafarroako Ingurumenaren

Kontseilua bezalako organoen osaketa desberdina traba izan ez dadin arlo honetan behar den iritzi trukaketa egiteko eta Ingurumen Departamentuak hartutako erabakiak ulertzeko.

Hori dela eta, jakin nahi dugu:

1. Zein dira Nafarroako Ehizaren Batzorde aholku-emailearen kideak izendatzeko irizpideak?

2. Noiz arte izanen du indarra batzorde horretan ordezkariak karguak betetzen dituzten batzordekideen egungo agintaldiak eta noiz aldatu ziren batzordeko karguak azken aldiz?

3. Batzorde horretako ordezkariak karguetarako hurrengo hautaketan zein ordezkariak sistema erabiliko da?

4. Ingurumen Departamentuaren aurreikuspenen arabera, noiz aztertuko dira ehizarekin zerikusia duten gizataldeen ordezkariak organoak?

Iruñean, 2001eko ekainaren 11n

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Iratxe Kontsumitzaileen Elkarteari emandako diru laguntzei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 18an egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Iratxe Kontsumitzaileen Elkarteari emandako diru laguntzei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin dio Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariari, idatziz erantzun diezaion:

Ekainaren 11n sartu zen Biltzarrean Iratxe Kontsumitzaileen Elkarteari emandako dirulaguntzei buruz egin nuen galderaren erantzuna. Erantzun haren datuak zabaltzeko, ondoko galdera egin dugu:

1. Elkarteari 2001eko aurrekontuetan emaniko 14.170.000 pezetako dirulaguntza osoaren des-

glosea. Egindako jarduerengatik (haiek zehaztuz) emaniko dirulaguntzei buruzko zehaztasunak eskatzen ditugu berriaz, zenbateko dirulaguntza jaso duten afiliatuen kopuruarengatik eta zenbateko dirulaguntza 2000n eginiko jarduerengatik, departamentuaren erantzunean bertan azaltzen denari jarraituz.

2. Departamentuaren erantzunean, oro har, elkarte horren gastuak eta dirusarrerak zehazten dira. Horiek guztiak direla eta, ondoko xehetasunak ezagutu nahi ditugu:

- Diruz lagundutakoaren zenbateko ehunekoa dagokio atal bakoitzari?

- Ba al du departamentuak funtzionamendu, langile tekniko, argitalpen eta prestakuntza gastuen desglosea? Hala bada, desglose hori nahi dugu.

- Ezagutzen al ditu departamentuak kuota zuzen eta zeharkakoen bidezko dirusarreraren xehetasunak –hain zuzen ere departamentuaren erantzunean 33.000.000 pezeta egiten dute–? Hala izanez gero, zehaztu zein kopuru den kuota zuzenei dagokiena eta zein zeharkako kuotei dagokiena; betiere, azaldu zein diren zeharkako kuota horiek.

Iruñean, 2001eko ekainaren 12an

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Edateko uraren hornidura dela-eta arazoren bat izan duten herriei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a ARANAZ ECHARRI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 18an egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aranaz Echarri jaunak edateko uraren hornidura dela-eta arazoren bat izan duten herriei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aranaz Echarri jaunak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta ondokoetan xedatuaren babesean, idatziz erantzuteko ondoko galderak egin ditu:

Zioen azalpena

Uda helduenez, eta garai honetan edateko uraren horniduran arazo handiagoak gertatzen direnez eta uraren kalitatea bera ere eskasagoa izaten denez...

Galdera hauek egiten ditugu, idatzizko erantzuna jasotzeko:

Nafarroako zein herritan izan da arazoren bat azken urte hauetan edateko uraren horniduran?

Zein da, oro har, Nafarroako edateko uraren kalitatea eta, azken urteotan, zein herritan ez ditu bete urak eskatu daitezkeen gutxieneko kalitate baldintzak?

Toki Administrazioiko Departamentuak zein neurri hartu ditu arazo horiek konpontzeko, epe laburrean eta ertainean, aurrea hartzeko nahiz horren eraginak arintzeko?

Iruñean, 2001eko ekainaren 13an

Foru parlamentaria: José María Aranaz Echarri

"Bidezainen etxeak" izenekoei buruzko galdera*EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 18an egindako bilkuran, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak "bidezainen etxeak" izenekoei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Bilzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak egin ditu, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak idatziz erantzun ditzan.

"Bidezainen etxeak" deitutakoak halako lanean diharduten langile taldearen beharrianak asetzearren Nafarroako Foru Diputazioak sortutako etxebizitza azpiegiturak dira.

Azpiegitura horietako askok eta askok, gaur egun, ez dute hasiera batean zuten zeregina betetzen, eta, halatan, bidezainen etxe ugari hutsik daude, batere erabili gabe eta aski narriatuta mantentze lanen faltaren eta denboraren joan-etorriaren eraginez.

Zenbait udal azpiegitura beharrean daudenez, interesgarria litzateke jakitea ea Nafarroako Gobernuak prest dagoen hutsik dauden etxebizitza horiek toki administrazioek erabil ditzaten gizarte arloko udal zerbitzuak emateko.

Egoera hori dela-eta, talde parlamentario honek ondoko galderak egin ditu:

1. Nafarroako zein herritan daude "bidezainen etxeak" deitutakoak -Nafarroako Gobernuaren azpiegiturak-? Eman zerrenda eta zehaztu halako zenbat etxebizitza dagoen herri bakoitzean.

2. Zein da horien gaur egungo okupazio maila?

3. Zer erabilera eman nahi die Nafarroako Gobernuak gaur egun hutsik dauden etxebizitzei?

4. Zer konpromiso dago gaur egungo maizterekin?

5. Jakin izan dugunez, udalen batek interes bizia du Nafarroako Gobernuak etxebizitza horien erabilera edo titulartasuna hari laga diezaion –jakin badakigu Altsasuko Udalak horretarako borondate argia duela–. Prest al dago Nafarroako Gobernuak, ba al du borondaterik, ukitutako toki entitateekin negoziatzeko etxebizitza horien erabilera edo titulartasuna lagatzeko akordio bat?

Iruñean, 2001eko ekainaren 13an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Errenta aitortpena Interneten bidez egin ahal izateko oztopoei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI CARLOS CRISTÓBAL GARCÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 18an egindako bilkuran, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak errenta aitortpena Interneten bidez egin ahal izateko oztopoei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carlos Cristóbal jaunak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin dio Ekonomia eta Ogasun Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

2000ko PFEZaren kanpaina ez da modurik izan Internetetik jaisteko aitortpena egin eta modu

telematikoan aurkezteko laguntzaren aplikazioa, ia kanpainaren bukaerara arte, nahiz eta euskarri optikoa (CD-Rom) eskuratzeko modurik izan departamentuko bulegoetara joanda.

Egoera hori dela eta, hona galderak:

- Zein egunetatik aurrera jaitsi ahal izan zen aplikazio hori Interneten bidez?

- Zenbateko prezioa zuen jendearentzat aitortpena egiten laguntzeko aplikazioaren CD-Rom-ek? Zenbat CD saldu zen?

- Egia al da aplikazio hori ez zela Nafarroako Gobernuko web orrialdetik jaisteko moduko bihurtu CD-Rom-aren argitara emandako kopien kopuru gutxieneko bat saldu arte?

- Uste al du Nafarroako Gobernuak jarduketa hori informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak modu zuzenean sustatzearekin bat heldu dela?

Iruñean, 2001eko ekainaren 15ean

Foru parlamentaria: Carlos Cristóbal García

Kartzela zaharraren ordezkari berri bat jartzeko konpromisoa nola beteko den jakiteko galdera

FORU PARLAMENTARI JORGE MORI IGOA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 18an egindako bilkuran, foru parlamentari Jorge Mori Igoa jaunak kartzela zaharraren ordezkari berri bat jartzeko konpromisoa nola beteko den jakiteko galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeari atxikiriko foru parlamentari

Jorge Mori jaunak, Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatuari jarraituz, honako galdera hau 188.1 artikulua arautzen duen presako bidetik izapida dadila eskatzen du, Parlamentuko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dadin. Galdera honako honi buruzkoa da: Nafarroako Gobernuak nola beteko duen hartu zuen konpromisoa, hain zuzen ere, Iruñeko espetxe zaharra Espainiako Konstituzioari eta gaur egungo legediaren arabera espetxe arloak dituen beharriari egokituriko espetxe berri batekin ordeztzekoa.

Galderaren zioak

Nafarroako Gobernuko eledun ofizialak ekainaren 11n esan zuenez, espetxearen kokalekuari buruzko erabakia ez zen tekniko izan, politiko baizik, eta "erabaki politikoa ez da oraindik

hartu", nahiz eta Lehendakariorde Gurra jaunak Muruzabalgo eskualdeko alkateei iragarri zien txosten teknikoek espetxea Muruzabalgo dermionan eraikitzea gomendatzen zutela. Gobernuaren eledun ofizialaren agerraldian izandako prentsan adierazi zenez, "azken erabakian –esan zuen eledunak– txosten teknikoen edukiak eragina izanen du, baina baita Gobernuaren irizpide politikoak ere".

Bi egun beranduago, Gobernuko Lehendakariak publikoki adierazi zuen bere Gobernuak espetxe berria Muruzabalgo dermionan eraikitzeari uko egin ziola, baina ez zuen ordezko beste kokalekuri zehaztu.

Galderaren testua

Aurrekoa azaldu ondoren, honako galdera hau egin zaio Nafarroako Gobernuari:

- Gobernuak uko egin al dio Iruñeko espetxe zaharra gaur egungo espetxe-legediari egokituriko espetxe berri batekin ordezteari? Kasua bada, zer plan dauka Gobernuak antza denez Nafarroarentzat beharrezkoa den espetxe moderno hori eraikitzeko, kontuan harturik hori eraikitzeko konpromisoa hartu zuela Gobernuak Justizia Ministerioaren aurrean?

Iruñean, 2001eko ekainaren 15ean

Foru parlamentaria: Jorge Mori Igoa

G Saila:**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA****Nafarroako Parlamentuko plantilla organikoaren aldaketa**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiko erabakia-
ren bidez 2001eko Nafarroako Parlamentuko
plantilla organikoa onetsi zen. Plantilla organiko
hura 2001eko otsailaren 6ko 9. Nafarroako Parla-
mentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko
ekainaren 18an egindako bilkuran, plantilla orga-

nikoa aldatzea erabaki du. 2001eko urtarrileko
1etik aurrera izanen ditu ondorioak. Erabaki hori
betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizia-
lean argitaratzen da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

a) Funtzionarioak.

	Kopurua	Maila	Izendapen askea	Esklu- sibitatea	Batera- ezintasuna	Lanpos- tua	Mailako osagarria	Berriazko osagarria
IDAZKARITZA NAGUSIA								
Legelari nagusia	1	A	X	55		75		16
Mahaiko eta Eledunen Batzarreko idazkaria								
Administrazioko burua	1	C	X			41,68	12	
Administraria	1	C				31,68	12	
ZERBITZU JURIDIKOAK								
Legelariak	4	A		55		50		
ZERBITZU OROKORRAK								
Administrazioko teknikari burua	1	B		55		30		
Teknikari diplomatua (**)	1	B		55		5		
Informatikako teknikaria	1	A			35	20		
Técnico Informático	1	B			35	20		
Administraria (*)	5	C				31,68	12	
Ofizial teknikaria (**)	1	C		55		6	12	
Gelazain nagusia								
Gelazain nagusia	1	D				32	15	
Gelazainak	10	D				22	15	
PRENTSA, ARGITALPEN ETA PROTOKOLO ZERBITZUA								
Prentsako burua	1	A		55		50		
Itzultzaileak	5	A		55		4		
Administraria (*)	1	C				31,68	12	
Transkriptoreak (*)	6	C				31,68	12	
Protokolo Burutza								
Administrazioko burua	1	C				41,68	12	

	Kopurua	Maila	Izendapen askea	Esklu- sibitatea	Batera- ezintasuna	Lanpos- tua	Mailako osagarria	Berriazko osagarria
ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIO ZERBITZUA								
Artxibo eta liburutegiko burua	1	A		55		30		
Liburutegiko laguntzailea eta dokumentalista	2	B			35	20		
Administraria (*)	1	C				31,68	12	
KONTU-HARTZAILAZIA ETA EKONOMIA GAIETARAKO ZERB.								
Kontu-hartzaitzako burua	1	B		55		30		15
Administrazio Kudeaketako teknikaria	1	B			35	20		
Administrariak	2	C				31,68	12	

(*) Administrari 1 euskarako tituluarekin.

(*) Transkriptore 1 euskarako tituluarekin.

(*) Administraria euskarako tituluarekin.

(**) Desagertzeko

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.300 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--